

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 101/2019 Erabakia, otsailaren 19koa. Onespena ematea Artatza-Axkoetako Administrazio Batzarreko kide kudeatzailea izendatzeari

Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeak Arabako Foru Aldundiari jakinarazi dio hutsik dagoela kargu bat Artatza-Axkoetako Administrazio Batzarrean, aipatutako administrazio batzarreko lehenengo kideak uko egin diolako karguari. Hortaz, aldundiari eskatzen zaio kargua betetzeko izendapena egitea, ez baitago beste hautagairik.

Azaldutakoa ikusirik, Arabako Lurralde Historikoko kontzejuetako errejidore eta kideak hautatzeko Foru Arauak 19. eta 21. artikuluetan eta Arabako Foru Aldundiaren martxoaren 26ko 829/1985 Erabakiak, arauak eman zituenak Arabako administrazio batzarretako batzorde eta kide kudeatzaileak izendatzeari, eratzeari eta haien funtzionamenduari buruz, bigarren paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik, egokia da aipatutako administrazio batzarrean hutsik dagoen kide kudeatzaile postua betetzeko pertsona izendatzea, hurrengo hauteskundeak egin arte.

Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 4ko 46/2015 Foru Dekretuak sail honi ematen dio, besteak beste, administrazio batzarretako hauteskunde araubidearen jarraipena egiteko eginkizuna, eta eginkizun horren barruan dago kargu horiek betetzeko foru aldundiak izendatuko dituen pertsonak proposatzea.

Horregatik, diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. José María Salazar Fernández de Palomares jauna izendatzea Artatza-Axkoetako Administrazio Batzarreko kide kudeatzaile.

Bigarrena. Martxoaren 26ko 829/1985 Erabakiaren bigarren idatz zatian xedatutakoarekin bat etorritik, aipatutako kide kudeatzailea errejidore-lehendakariak horretarako beren-beregi deituko duen aparteko bilkura batean jabetu beharko da karguaz. Erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo zazpi egun baldiodunen barruan egin beharko da bilkura hori.

Bilkura egin eta hurrengo hiru egunen barruan bidaliko zaio Arabako Foru Aldundi honi bilkura horretako aktaren ziurtagiria.

Hirugarrena. Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak erabaki hau ALHAOn argitaratu dezala.

Gasteiz, 2019ko otsailaren 19a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko diputatua
MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria
IÑAKI GUILLERNA SAENZ